

TOLOSA / Txantoz, Errota berriari ongietorria

Iragan urrian ireki bazuten ere, atzo burutu zuten Haur Liburutegiaren inaugurazio ofizialeko jaia

Noelia Lataburu

Herriko haurrentzako kultur gunea jolas gunea ere bilakatu zen atzokoan. Izan ere, iragan ikasturtearen hasieratik erabilgarri den arren, Errota Haur Liburutegiaren inaugurazio festa burutu zuten. Bertan, nola ez, etxeko txikienak izan ziren ardatza, eta ez zuten aspertzeko paradarik izan. Gehienek ere mozorroa jantzi eta, egun batez, ipuin bateko protagonista izan ziren. Txano Gorritxu, itsaslapurrak, SpidermanÉ guztientzat lekua izan zen festan.

Denetik izan zen adin guztientzako umeentzat. Festari ongietorria emateko, bertso antzerki bat izan zen ikusgai, 1, 2, 3É Inaxito. Eguraldi txarra zela eta, Berdura plazan egin zuten; behin antzerkia amaitu zenean, jolasen txanda heldu zen. Talde ezberdinak osatu zituzten, adinen arabera. Hala, 5 urte gorakoentzat Zer ipuin da? jolasa burutu zuten; 7 urte gorakoek, Non dago Wally? jolasarekin ederki igaro zuten. Hauentzat bigarren jolasik ere izan zen, Zu ere liburuzain, hain zuzen. Eta, azkenik, 11 urte gorakoek Ibili bilaÉ eta aurkitu jolasarekin igaro zuten arratsaldea. Gurasoek ere adi-adi jarraitu zuten haien txikitxoek mugimendu guztiak. Galdutako indarrak berreskuratze-edo iluntze partera txokolatea eskaini zieten. Gisa honetara ofizialki inauguratu dute Errota Haur Liburutegi berriua; umeen kasuan udari ongietorria emateko ere baliatu zuten jaialdia, eguraldiak gehiegi lagundu ez bazuen ere.